

# Haizearen norabidea

*Gotzon Plaza Jaio*



Zumaira  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

*enkan  
txanplan*

# Haizearen norabidea

*Gotzon Plaza Jaio*

Julene Azpeitia 35. ipuin lehiaketa

2022

Bigarren saria

2022ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Gotzon Plaza Jaio (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

–Zortea haizearen arabera ari da –esan zidan behin portu zaharreko marinela zaharrago batek. Alkoholizatua izateak ez zion argudioari inolako pisurik arindu.

Ez naiz batere kostaldeko gizona eta itsasoa begiratze hutsak tripetan zorabioak sortzen dizkit. Hala eta guztiz, ez naiz tipo txarra, ez behintzat beste asko baino txarragoa. Nire maniak edo ero batek ferratuko lituzkeen antzarak ditut, baina kasuen-bastos! Nork ez ditu balizko asmoak buruan, e?

Polizian izan nintzen kasik hamar urtetan eta akademiatik atera berriak ziren mukizuak nire aldamenetik igarotzen zitzaizkidan arnasarik hartu gabe. Batek esango zukeen nire dutxak hartzeko erritmo irregularren ondorioa zela, baina usaimenarekin at beste aitzakia batzuk erabiliz sudurra uzkuratzen zuten. Pigurante haiek gure komisaldegi arrunt eta baztertutik laster alde egiten zuten eta abiadura beraz okupatzen zituzten eskalafoian kargurik mamitsu eta interesgarrienak. Eta nola ez, kasurik nabarienak beraiantzat desbideratzen zituzten eta faltsu ustel haien ustez soilik nire lurrin korporalari zegozkion arazo huskiak ematen zizkidaten, zabor pila banintz bezala.

Halaxe hasi nintzen gaueko katuen pareko lanak burutzen hiriko kalerik ilun eta eskandaluz beterikoenetan. Mozolo haiek zigor bezala bidali ninduten auzo malapartatu hartara, baina gogo onez aritu nintzen eta egunak –gauak hobe– aurrera joan ahala kolkoari hura nire habitat naturala zela esaten nion. Ez zen ez, bizimodu eskasa.

Kale eta argi gorritz apainduriko lokaletan jaio zitzaidan argazkigintzarako zaletasuna. Halako esaldia ez da literalki hartu behar, *sensu latoan* baino: Bolitxe zen argazkilaria eta bere jabegoan zen klub liberaleko bezeroak ziren argazkiotako modelo sasiboluntarioak. Esan beharra dut, gaizki pentsatzeko ohitura dutenentzat, Bolitxe eta bere neska dotoreak baino pertsona zintzoagorik ez ditudala ez inoiz, ezta inon aurkitu.

Jakina, dirua zen tartekari tratuotan, baina zer egingo diogu halako merkatuaren tiranian izanik? Akaso tirania ba al da matxinada egiteko ganorazko arrazoirik? Ez naiz ni lirismoetan iaioa, baina ezezko biribila emango nioke halako ausardia antzuari.

Bolixeren neskak prestu ziren argazki berriak egitekotan eta barre artean onartzen zituzten bezero exigenteen fantasia mozorrotzaileak. Erizainarena, eskolako maistrarena, Txano Gorritxorena edota larru beltzez jantzirik ageri ziren moral nasai, oparo eta ugaritako fantasiak gorpuzteko.

Zera aitortu beharra dut: hauen zerbitzuetako bezero kontent eta asetuen baimenik gabe ateratzen zituela Bolitxek argazkiok. Baina ezin gara bizi egindako guztiagatik baimenak eskatuz eta exijituz, edo halako zentzuzko argudioa burutzen zuen lokaleko jaun, kudeatzaile eta informatzaile nuen Bolitxek.

Euskal-argentinarren leinukoa, Córdoba probintziako zabalera irekiak atzean utzi zituen eta arbasoen jaioterrian ezkutatu zen arrazoi inoiz ez argituak zirela medio. Baina argudio pisutsuak izan behar edo halaxe pentsa nezakeen sikarioen itzal luzengatua norberaren bizkarrean itsatsita igarri izan banio, eta beraz, ongi ulertu nituen Bolitxeren aire aldaketaren funtsak. Itsasoz bestaldeko lurralde zaharrean hobekien zekiena egiteko buru-belarri aritu zen eta esfortzu eta kemenari esker –gehi hirian sexuaren negozioa kontrolatzen zuen talde ezgomendagarri batek egindako mailegu txiki batekin– “La Pampa” izeneko eta aipatutako klub liberala ireki zuen hiriko kalerik animatuenean.

Bitxia da mailegu txikiak hain interes handiak sortzeko duten trebezia. Halakoak marmarkatuz Bolitxek zerbait egin behar zuela pentsatu zuen lepotik tiraka zuen zorren soka larregi estuturik sentitu baino lehen. Polizia bezala –baita bezero bezala ere– laster ohartu nintzen argentinarraren arazoaz eta zulo hartatik ateratzeko negozioaren etorkizuna epifania distiratsua bezala ikusi nuen. Bolitxek gogotsu eta animoso ekin zion nire proposamenari eta merkatuan zen argazki kamerarik garestiena erosi zuen.

–No jodás, loco! Hau ez da gastua, inbertsioa baino –argitu zidan.

Argazki artistiko estimulagarriak bezero dirudun edota Administrazioako funtzionarioen despatxuetara bidaltzen genizkien. Gaizki pentsatuko lukeenak txantaiatzeko jarduera zaharra zela esango luke. Erraturik legoke, gure sozietate hartan Alkatesa sozia bezala onartu genuen geroztik. Alkatesak –egunkarietan argitaratutako eskandaluari kasu eginez, izengoitia kostaldeko alkate ezagun batekin jorratutako pasadizo historikoan lorturik baitzuen– guk biok baino balore etiko handiagoak izateaz aparte begi galantak, izter galantak, bular galantak eta orokorrean den-dena zuen galanta irudian.

Haatik, begi-bistan ziren xarmak ez ziren nahiko berrikuntza kutsua emateko gure sozietatearen helburu sozialei. Lanbide izeneko erakunde publikoan ikastaro trinkoak kemenez burutu ondoren –eta sikiera behin diru publikoak ongi inbertitzen zirela probatuz–, Alkatesa gai zen argazkiak eta medio audiobisual orok Internetera igo, bideratu eta sareko web pornografiko gehienetan argitaratzeko edota egunkarietako erredakzioetara bidaltzeko, beti anonimotasuna bermatuz. Bideoak editatu eta komeni zitzairen musika sinkopatua atxikitzeko edo kameraren zooma erabiliz bezeroaren anatomiako atal bereziak azpimarratzeko ere prestu azaldu zituen intentzioak. Bolitxe eta biok, apetentzietan nahiko klasikoak izanik, bezeroak orgasmora iristean uzten zituzten ufada eta orroak entzuteko doinu extrarik gabe errazagoa zatekeela konbentzitu genuen.

Berrikuntzak beti dira onerako eta halaxe ulertu zuten di-da batean argazki eta bideoetako aktore printzipalek. Ez zuten inoiz arazorik izan gure esfortzuen truk eskatutako ordainsaria bideratzeko horretarako apropos Andorran irekirik mantendu genuen banku kontura. Negozio diskretuak banku diskretuen eskutik datoz, azaldu zigun Finantza Zuzendaria izendatu genuen Bolitxek.

Baina lar diru-gose izatea beti izan ohi da arazoa, pentsatzen nuen nire sozioek erreportaje haietako protagonista berari bigarren edo hirugarren aldiz diru eskaerak egiteko asmoak plazaratzen zituztenean.

–Bere neurritik ateraz gero, pertsona galdu egiten da –aholkatu nien bie.

Ongi ezagutzen nituen pertsona lar iraindu batek bila zitzakeen medioak arazoa bidetik libratzeko. Hobe zen lehen txekoa kobratu eta berriro ez molestatu, dozena erdi morroi arriskutsu gure atzetik izatea baino. Bolitxe eta Alkatesa, biak, ados ziren nik negozioari buruzko norabide estrategiko hartaz azaldutako iritziarekin eta haiek ere jarraitzailerik gabe askozaz erosoago bizi zirela bat etorri ziren nire uste apalarekin.

Dena den, eta Alkatesak plazaratu zigun taxuzko iritzia, ez zegozkigukeen batere gaizki komenigarritzko errefortzuak psikologia emozionalaren aldetik. Txiki-txiki egiteko intentzio okerrekin hurbilduko zitzaigukeen edonor beti zatekeen emozio aldrebestuen eragile, jakina. Honen aurrean, ezagutzen zuen berak boxeolari profesionala izandako urlia eta sos urri batzuen truk prest izango genukeen gure alde animoak zaintzeko-edo.

–Hara hemen, hau duzue Cindy –aurkeztu zigun Bolitxeren lokalean.

Cindy hark ez zuela Cindy Crawforden ile puntarik ere xuxurlatu zidan argentinarrak. Ados, nire entendimentuak ailegaten ziren une arte Cindy Crawford emakumezkoa zen eta tipo hark –ez nuen ordea zalantza ziurtatzeko inolako gogorik– harren espeziekoa antzematen zuen, gizajoaren itxura desitxurosoan gehiegi sakondu gabe.

Begirada galdua izan arren, Alkatesak konfiantza osoko gizon bezala gomendatu zigun eta emakumeak zituen ideia onak kontuan izanik, sozietatean partaide leial gisa onartu genuen. Ez zen batere tipo eskasa eta noizbait baino gehiagotan ongi gobernatu zituen Bolitxeren lokalean zaratatsu eta graduazio ugariako alkoholez lar kalteturik ziren bezero parranderoak. Ongi erabiltzen zituen erretorika eskolastiko-teologikoaren arrazoiketak liskarziale eta borrokalariak kupida gabe kaleratu aurretik.

–Sin-dientes! Sin-dientes, kabroiok! Sin-dientes aterako zarete hemendik!

Ez zegoen gaizki hortzaduraren erdia galdurik zuenarentzat. Profesionalki karrera motza izan bazuen ere, esperientzia eredugarriak atera zituen gure Cindyk. Hamar borrokaldi burutu eta errekorrak hausteko tenorean suertatu zen gure bizkartzaina: lau borroka bigarren asaltoan amaitu, beste bost hirugarrenean eta azken saioan lehen asaltoan ikusi zuen bere burua zoruaren zabalerak neurtzen epaile jaunak KO teknikoaren ohar guztiak eman baino lehentxeago. Ez-ulertze arazoei leporatzen zien gure Cindyk boxeolari bezala izandako bide petrala: entrenatzaileak distantziak mantentzeko esan eta Cindyk okerrekoa ulertu, edo entrenatzaileak hurbileko kolpeak erabil zitzan garrasi egin eta Cindy kolpe luzeekin saiatu. Boxeolariak entzumenaren ia hiru laurdena galduta izateak –eta halaxe onartua zuen Diputazioko zerbitzuetan– ez zizkion gauzak erraztu estrategiarik egokienak lantzeko une larrietan.

Hura izan zen nire bizitzako unerik borobilduena. Gure sozietate txikiak aurrera egin zuen eta horretarako Administrazioaren aldetik gu bezalako enpresari hasiberriei jartzen zitzaizkigun oztopoak –baimenak, zergak eta halako enbarazuak, Bolitxek eta denok genuen ekonomia liberalaren eredutik urrun zirenak– eta noizbehinkako inspezioak modu komenigarrienean saihestuak genituen. Bideo artistikoen laguntza eta aitzakiaz, karreradun edo funtzionario politikoek egunen batean ilobei harrotasunez kontatuko zizkieten enpresa txikien alde egindako influentziak eta nekealdiak.

Polizia nintzen –beharbada, sudur finenek ez zuten nire presentzia estimatzen baina– eta enpresaria ere bai. Nire kontaktuek aurretiaz adierazten zizkidaten hirira etorriko ziren negozio-gizonen bisitaldiak. Bolitxek negozio paraleloa zuen negozio-emakumeen apetentziak asetzeko, baina halakoetan Alkatesaren bitartez adosten zen enkargua.

–Txe, ez dago munduaren erdia ez lantzeko zergatirik.

Soilik funtzionario politikoekin ezin genuen bizitza osotu. Beraz, hirira iristen ziren negozianteak –bai gizon bai emakumezkoak– helburu klasiko moduan hartu genituen. Negozioak negozioak baino ez dira, eta halaxe ulertuko zuketena denek.

Kontaktuak nituen ofizioan eta Bolitxek (edo Alkatesak), beti adeitasunez eta modu diskretuan, halako gauzak egin behar diren bezalaxe, bere klubeko onurak eta zaletasun bitxienak kunplitzeko ziren hamaika era desberdinak azaltzen zizkien. Gure enpresak jartzen zizkien garraioak eta isiltasunak. Kopa bat, bigarrena, Alkatesak lidergo naturalean gidatzen zuen neska- edo mutil-talde berezia bezeroen presentziara; bezeroek eskatu, edo aurretiaz adosturik genituen jada saioaren xehetasunak; saloi pribatuak, beste kopatxo bat eta grabaketa sistemak martxan jarriko ziren.

Korreo elektronikoz jasotzen zuten mezuak ez ziren zalantzan aritzeko inolako betarik ematen. Ongi profitatu zituen Alkatesak erakunde publikoak profesionalen formakuntzarako planteatutako ikastarook: korreoz bidalitako IP helbidea ongi mozorroturik zen dozena erdi zerbitzari elektronikoen artean eta batetik bestera bidalitako kodeketa kriptografiatu asimetrikoari esker. Ez nuen ezer ulertzen, baina ateratako emendioek gure Andorrako kontua loditzen zutela baieztatzen nuen guztion pozerako.

Baina haizea aldatu zitzaidan eta aldi berean, zorteak bizkarra eman.

Nola jakingo nukeen haietako bisitari bi Audientzia Nazionaleko epaileak zirenik? Bolitxek, ohi bezala, gonbidapen eskuzabala egin zien hiriko hotelik garestienean ostatu hartu zuten enpresari korro zehaztukoiei. Nola jakingo zukeen argentinarrak enpresari haiek hotelean ziren bi epaile haiei pasatuko zietenik egindako gonbidapena? Eta nola jakingo zukeen Alkatesak adin ertainetik gorako –karitatez esana– gizon bi haiek, zeintzuk presondegian izateko fantasia sexuala ageri baitzuten –bata preso bezala, bestea presondegiko funtzionarioa–, Justiziaren gupilean hain figura nabariak zirenik?

Audientziako epaileak ez dira edozein zirkutako pailazoak. Influentziak eta kontaktu makalak dituzte eta ez ziren geldirik izan hiri probintzial postindustrial xume batean izandako gertaera haiek uzkiak zulatzen eta endredatzen ari zitzaizkien tartean. Laburbilduz esateko, nahiko iskanbila sortu zen gure hiriko komisaldegietan, baina inork ez zekien honen jatorria. Neuk salbu, jakina, baina ez naiz berriak aireratzen dituzten horietakoa. Soilik falta nuen sudurra uzkuratzen zuten haiek niganako intentzio espekulatiboak izan zitzaaten. Ez jauna, halakorik ez nire pentsamenduan.

Beraz eta ekaitza baretu arte, isilik baina adi izateko estrategia landu nuen. Isilik nintzen komisaldegian, baina konpentsazio moduan, egoera susmagarri hari buruzko solasaldi arduratsuak lantzen nituen enpresako sozioekin.

Madriletak bidalitako agenteak Bolitxerenera iritsi zirenean, honek zailtasun handiak izan zituen auzoko parrokiarekin esparru sozialetara zuzenduriko erakunde solidarioa baino ez zela sostengatzeko eta aldi berean, hiriburuko agenteen begirada maltzur eta aurreiritziz beteak saihesteko. Alkatesak emakume babesgabearen rola jokatu zuen eta bide dezentea jorratzeko Lanbideko ikastaroen balioa aldarrikatu zien agente serio haiei. Kluba goitik behera arakatu zuten, baina nire aurretiazko abisuari esker, ez zuten ezer aurkitu parrokiako iganderoko orri solteak, elkarlana suspertzeko aldizkariak eta ardi galduak ahalduzko autolaguntzako liburu sortak izan ezik.

Eta susmoek alde egin arte, audiobisual ekoizpenarekin etenaldia burutzeko une aproposa zela otu zitzaigun administrazio kontseilari ginen guztioi. Negozio mundua laga nuen eta bata bigarrenik gabe ez delako etortzen, polizia ofizioan zailtasunak areagotu egin zitzaizkidan. Trapitxeo merkean konfiskaturiko lau kilo eta erdi marihuana komisaldegiko biltegitik desagertu zirenean ofizial gazteek sudurrak niganantz bueltatu zituzten. Ez nintzaien ekonomia ireki askearen onurak azaltzen hasiko babalore beti suminkor haiei, baina Bolitxe eta Cindyren laguntzaz hiriko kale bizienean eskaintzaren trafikoa areagotu egin zen egun haietan. Biziotzuen artean Errioxako ardoek, txanpain garestiek eta komisaldegiko maria paketeek harrera ezin hobea zuten.

Garai hartan, komisaldegiko nagusiaren emakumearekin halako barne fluidoak partekatzeko bi aldiz asteroko hartu-emana izateak seguru asko ez zidan askorik lagundu nire aldeko predikamentuak indar nitzan. Zortearen haizea orain



ere aldrebes, ofiziala enteratu geroztik ezin zuen nire bisaia ikusi gerrikotik araudizko arma atera eta tiro-hotsean hasteko emozioez gainditurik izan gabe – Barne Arazoetako inoren puzkerzale horiek txutxu-mutxuarekin hurbilduko zitzaizkioken, ziur asko, salatari alu haiek–.

Zera nahi dut esan, haizea maldan behera hasi zitzaidala. Mariaren desagerpenaz geroztik eta epaileen aferan irabazitako mesfidantzekin, Poliziatik lehenbailehen ipurdia atera nezan gonbidapena egin zidaten kabroi haiek. Popatik bidali nituen edo bidali ninduten. Merkatu librean hasi nintzen, han-hemen salmenta txikiak eginez, baina beti substantzia psikotropikoen ekonomia zirkularretik urrun. Norberaren balore moralei eutsi behar zaie, kosta ahala kosta, halaxe ikasita nuen Bolitxe eta Alkatesa bezalako sozioen eredu jarraigarrietatik.

–Qué pasó, viejo? –agurtu ninduen ohiko olesaz Bolitxek gaur zortzi.

–Lan eskaintza egin didate. 10.000 arrazoi eta baiezkoa esan diet – azalpenekin luzatu behar nintzaiola otu zitzaidan–. Gure epaile estimatu haietako baten abokatuak eskatu dit lan diskretua. Edo exijitu, ez dakit. 10.000 euroko saria alde batetik eta bestetik epaileak nigan dituen susmoak ahaztuko dituela ziurtatu dit. Victoria Eugenia, etxekoen artean Vicky deituriko 23 urteko alaba gazteena bidali behar diet Madrilerara. Lehenbailehen, isilpean eta inolako zarata eta publizitaterik gabe.

–Qué zarpado! –pagotxa itzela nuela uste zuen– Bahiketa klasiko erraza, ezta?

–Ez da hain erraza, Bolitxe. Santutegian sartu behar ditut muturrak.

Santutegia gauza seriosa zen. Kolonbiarrek makina bat kokaina bideratzen zuten Rotterdameko portura, baina tamalez Europako poliziaburu guztiek erruta honetako pausoak zekizkiten. Beraz, eta bide guztiek Erromara eramaten gaituzten bezala, kolonbiarrek trafikatzaille galegoekin adostu zuten erruta berria – itsasotik paraleloki, baina ura ukitu gabe– Euskal Herritik barna Europaratzeko. Antolaketa konplexuagoa, baina bide seguruagoa. Eta segurtasuna txalogarria den balore espirituala da, jakina.

Miarritze aldeko droga jauntxoek prestatu zuten dena. Santutegia izeneko taldea osotu zuten, Frantziako laizismoari keinua eginez: Xan-Piarres, Xan-Luc eta Xan-Marie anaiak ziren erakunde berri honetako buru nagusiak. Hirukoteen izenak

zerrendatuz, Xan ugari baina argi zen edonorentzat ez zirela sailduak, nahiko bekatari arriskutsuak baino. Galegoen eskutik merkantzia fardelak kamioietan jaso eta iparraldera doazen *autorouteak* erabiliz arduratzen ziren banaketaz. Ez zen batere negozio pobrea. Ez behintzat Santutegikoentzat.

Viky emakume gaztea haietako batekin, Xan-Marie edo agian Xan-Lucekin uztarturik zen. Ahuntz zaharraren gorozkia baino sikuagoa zen Madrileko abokatu serioak esan bezala, gazteak nahiko txori zuen entendimentuan eta turkoen kulebroien batean sarturik bezala ikusten zuen buru propioa. Ikusmena kalteturik izanda, hobe zukeen oftalmologo batengana joatea eta ez ni bezalako ofizio liberaletan jardun zen morroi batengana, pentsatu nuen, baina isilik mantendu nituen iritziok.

Bolixte, Alkatesa, Cindy eta laurok bildu ginen bahiketa azkarraren plan ausartari forma emateko. Jakin bagenekien Santutegiko ministroek non zuten egoitza pribatua: kostaldeko herri garestieneko urbanizazio garestieneko txalet garestiengan, hain zuzen. Distrakzio maniobra behar genuen Xantu haiek egoitza utz zezaten eta lana erraz ziezaguten. Baina Viky txaletean mantendu beharra zuen, hau da, denek ezin zuten festa edo halako aktuazio batera joan behar.

–Eta arazo profesionala sortuko bagenie, zer? –proposatu zuen beti buru argia zuen Alkatesak– Xantuak merkantziak begiztatzeko aterako lirateke eta neska egoitzan bakarrik izango genuke. Unea aprobetxatzea baino ez legokiguke.

–La rompe! –txunditurik azaldu zen Bolixte.

–Ederki –ados nintzen–. Baina nola aterako ditugu Xantuak? Ezin diegu deitu eta kaleratzeko eskatu. Frantsesak bai, baina ez dira hain babalore inuzenteak.

–Beno, agian Grigoriren laguntza erabil genezake –hitzak astiro ahoskatu zituen Alkatesak oraindik forma zehatza eman gabeko planari birak emanaz.

Grigori errusoa –Gregorio Lapatza-Gortazar izatez– Zeanuriko Ipiñaburu auzo galdutako arratzi peto-petoa zen. Alkoholaren eraginez kolkoraino zopaz blaituta zenean, bailarako hizkera aldrebestua erabilita inork ez zion tutik ere ulertzen errusieraz balitz legez. Ez zen, seguruenik, ez auzune ezta bailarako morroirik argiena. Apenas burua mendi arteko mugetatik atera gabea, hiriko kale

biziotsuak lehen aldiz dastatu zuenetik ez zuen sorterrira itzultzeko gogorik eta kaleotan bizitzera animatu zen.

–Jokalari pareta falta zaio –Bolitxek memelo hutsa zela adierazi zuen.

–Horrexegatik amu egokia izango dugu –ondorioztatu zuen Alkatesak.

Vodkari amodio lehorrezina soinean, informazio delikatuak salduz ateratzen zituen billete batzuk. Santutegiarentzako lan xume batzuk eginak zituen –begirale edo txoferra, traktoreak eramateko zuen karnet kadukatua agiri ofizial bezala erakutsiz–. Alferra beti nekatuta, mozkorra beti egarri.

Ekintzaren bezperan, herenegun hain zuzen, Bolitxek kale-kantoian itxaron zuen Grigori errusoaren agerraldia eta ohiko agurren ondoren kopatxo bat hartzera gonbidatu zion. Arratiarrak ezin esan ezezkorik eta lokalean sartu zen. Bolitxek botila osoa oparitu zion begi harritu haien ostean zen aho lehortuari eta Alkatesa hurbildu zitzaion elkarrizketa sortzeko asmoz. Tragoen artean eta inolako aparteko garrantzirik eman gabe, emakumeak informazio konfidentziala luzatu zion errusoari: klubeko bezeroen arteko txutxu-mutxuak, badakizu, jende ezezaguna hirian, atzeritarrak, ziur asko negozio berezietan aritzeko asmotan, hau eta bestea, eta bestea eta hura.

Botila goitik behera xahutuz gero, notizia berri haien truk Santutegikoek beste botila pareta lortzeko adina baliabiderik emango ziotela otu zitzaion Grigoriri eta telefono deia luzatu zion barraren beste puntatik.

–Hi haiz izateko aitzur kirtena –zioen ahapeka Alkatesak begi keinua Bolitxeri zuzenduz eta arratiar errusoaren piura uzkurtua irribarre zinikoaz distantziatik ikusita.

–Merde! Bruselako taldea gure esparruan? Belgak ausartu al direla gure negozioan muturrak sartzen? *Putain*, arraposta izanen dute! Erran berriz entzundakoa –eta hau guztia frantsesek errea ahoskatzeko doinuarekin entzun behar da.

Polizia ohia nintzelako-edo, niri egokitu zitzaidan artilleria prest izateko manatua. Kanoiak mozturik zituen bi tiroko eskopeta –distantzia urrietarako arma definitiboa– eta pistola ofizial bi –HK USP 9 mm-koa Ertzaintzako buru batek Bolitxeren lokalaren barran ahaztutakoa bata, eta SIG Sauer P226a beste burukide batek presaka zenean atzean lagatakoa–. Pistola hauen jabeek ez zituzten –komisaldegian azalpenak emateko une kritikoan– inoiz ahaztuko presaka aritzeak

orokorrean sortzen dituen enbarazuak. Cindy, bere kabuz, ukabil-amerikanoak eramateko prestu zen eta erakutsitako inizatiba txalotu genion. Ez ginen esku hutsik Santutegian sartzeko bezain txoropitoak.

Kamuflaturik ginen Santutegiko egoitzaren inguruetan Cindyk mailegutan eta jabearen baimen zehatzik gabe hartutako furgoneta barruan hiru auto ziztu bizian atera zirenean. Gure amua estimulagarria suertatu zitzaiera baieztatu genuen eta Alkatesaren imajinazioa goraiatzeko beste une bat izan genuen, zeren frantses bati belgikar batek adarra joko diola esaterik baino ez baitago bere onetik ateratzeko. Ai ene, *la Grandeur*, zenbat hondamendi sortu duen!

Plana erraza eta azkarra genuen: *veni, vidi* eta hanka egin. Maskarak jarrita sartu, emakumea hartu eta furgonetara eramane, nahita ala nahi gabe. Bolitxe eta biok arduratuko ginen bidaiak Alkatesak eta Cindyk bizkarrak zaintzen zizkiguten artean. Madrileko familiak Suitzako internatu batera edo halako inuzentekeria egiteko prest zela esan zidan abokatu tristeak. Inuzentekeria nire uztako iritzi pertsonala zen, baina sozioak bat ziren nire ustearekin. Xan-Luc edo Xan-Marie hark, etxera itzultzean, emakumearen falta ikusiko zukeen, jakina, baina seguruenik ez zukeen neskaen ausentzia larregi penatuko eta ondorioz ez zituen gauzak endredatuko.

Egoitzara sartu ginen laurok furgoneta sarreraraino hurbildu ondoren. Gure ezusterako, eta ongi planifikaturiko lana ipurdiz gora jarririk, Viky ez zen bakarrik: atea ireki ondoren eta beheko solairuko korridorean ginela hiru korsikar bizkartzain sendoek bidea moztu ziguten. Gauza ugari esan litezke korsikarrei buruz, baina inoiz ez ezerean aurrean kikiltzeko modukoak direnik.

–Sós un boludo! Qué macana de plan! –argentinarra haserre edo ikaraturik zen.

Bolitxeren ustetan planaren xehetasunak bileran erabaki bezala ez izatea nire erru partikularra baino ez zen. Zerbait erantzuteko tenorean nintzaion, Alkatesak eta Cindyk ere zerbait jarri zutela beren aldetik edo halako erantzuna, baina zirkunstantziak ez ziren sofismen inguruan eztabaidan hasteko unerik egokienak. Hala eta guztiz, korsikarrak pauso neurtuez gugana zeharo intentzio maltzurerekin hurbiltzean oinarritzko zientzia zen Matematikan jarri nuen barne konfiantza: gu lau ginen eta haiek hiru baino ez. Gurea zen abantaila eta atzera ez egiteko aholkatu zidan barne sen erratuak.

–Quale si, maledettu stupidu? Induve pensi di andà, figliogi di puttane?

Ez zen hizkuntzetan lar iaioa izan behar esanahia ulertzeko. Batez ere, ahoskatze doinuan aditu genien esan nahi zigutena. Eta pistolen bila-edo, jake poltsikoetan eskuak sarturik izateak hizkuntza arrotzak ongi ulertzeko abilezia zeharo garatu zigun.

Zerbait egin behar genuen eta zerbait horrek azkarra izan behar zuen. Cindyk erabaki zuen kasualitatezko enkontru haren bigarren pausoa. Ukabil-amerikanoei eutsirik, korsikarrei zuzendu zitzaien borrokarako ohiko letanian:

–Sin-dientes! Ikusiko duzue nor den hemen frigorifiko buztana!

Cindyk hamaikagarren aldiz zorutik zaindu zituen ondorengo gertaerak. Eta zenbakiak berdindurik ziren, gure zoritxarrerako: hiruna talde bakoitzarentzat.

Bolitzek, defentsa emozionalerako lagun eta sozia lurretik ikusita, HK pistola atera zuen. Euskal-argentinarrak karrera profesional propioa beste esparru laboral mazalagoetatik emana izanik, ez zuen erabaki tiroa nora edo nori jo behar zion eta begiak itxirik atera zuen arma, apuntatu eta su egin. Halako kasualitatez balak ez zuen zuzenean inor aparatu, baina korsikarren ostean zen marmolezko aparadorean errebotatu eta haietako bati bala puxkatxo kokotean iltzatu zitzaion. Seko geratu zen atoan. Zenbakiak gure alde orekatu ziren berriz: gu hiru zutik, haiek bi.

Ni, tiroaren oihartzuna espiritu harmonian dunbadaka, apenas nire SIG Sauer ateratzeko kapaz izan nintzen. Alkatesak, gizonezkoei zegozkigun arazo teknikoak ikusita, inizatiba hartu zuen kanoiak mozturik zituen eskopeta erabiliz. Bi aldiz erabiliz beste oharrik gabe. Korsikarren arteko ezkerreko bizkartzainak perdigoi mordoa jaso zituen belaun eta izter parean, nahiz eta Alkatesak hanka tarteko haragi bigunetara bideratu nahi izan lehen tiroa. Bigarreanean, emakume liberalari eskuetan zuen eskopeta kanoi moztua ia-ia irristatu zitzaiolako-edo, Alkatesak ezin zuen gauza handirik egin: korridoreko sabaira joan zitzaion tiroa eta igeltsu maluta zurituak erortzen hasi ziren guztion gainera ortziaren orde zulo makala irekirik zen tokitik.

Negutegi-efektua, otu zitzaidan hain toki itxian eskopetada bi haien emaitza bezala belarrietan txistu finak etengabe jotzen zidan matraka amaitu ezinik. Hauts zuriaren tartetik belauna betirako minduta zuenaren biraoak entzuteko gai

nintzen. Baita zutik geratzen zen bakarra –Cindyren bisaia zapaldu ondoren eta oraindik begi itxiak zituen Bolintxe beso mugimendu bortitz batez bazterturik–nigana zetorkidala azken irudi bezala dut memorian.

Alexandro edo Julio Zesarrek edota hauen ondorengo jeneralek ongi ikasita izango zuketan aurrez aurreko erasoan hegadak zaindu behar direneko ikasgaia. Ez ginen gu haien pareko eta, beraz, ezkerreko korridoretik emakume gaztearen eraso ez zitzaigun komeni bezala entendimentuetara iritsi. Burdinurtuzko zartagin astuna eramateak figura alegoriko baten irudia osotzen zion txoriak buruan zituen emakume gazteari, ez dakit, walkiria bereziki samindu eta odolzalearena edo halako zerbaiten irudi aski poetikoa. Nire radar sistemak blokeaturik ziren eskopeta motz madarikatu haren dunbada hotsei esker eta ez nuen ez begirik, ezta erreflexurik ezkerretik eskumatara zetorkidan zartagin hegalaria saihesteko. Bete-bete harrapatu ninduen eta oreka zeharo galdurik zaku zirpildu baten antzera aurrerantz erori nintzen, korsikar haserretu haren beso irekietara. Desenkusa bezala, zartagin hegalarrien kolpeek nahiko zakarrak izateko ohitura xelebrea dutela ziurtatzeko moduan nengo.

Dena ezin da betirako gaizkia izan eta nire borondate gabeko higiduraz baliatuz, Alkatesak eskopeta-kulataz eraso zuen zutik mantentzen zen bizkartzaina. Honek, beso biak endredaturik gainera erori zitzaion nire gorputz konorte gabearekin, ez zuen erreserbako hiru edo laugarren besorik eraso berria errefusatzeko. Marka eder galanta, Alkatesaren estilokoa, geratu zitzaion bekokian. Azken aktoa ez nuen ikusi, jakina, buruan irekirik nuen zauritik odol gorrituak sabaiko hauts maluta zuriekin nahasten ari zitzaizkidalako.

Etxe barnean, korsikarrak jokoan kanpo –batak belauna erabat deseginik eta besteak kulataren forma bekokiaren ezker aldean markaturik–, Alkatesak Viky desarmatu zuen. Ez zailtasunik gabe, esan bezala zartagina arma arriskutsua baitzen. Baina Alkatesa ez zen kikildu eta eskopeta tresna mehatxatzaile bezala, neskak esku hutsak jaso zituen –gaztea ez zen lar trebea zenbakiekin, bi tiro egin ondoren eskopeta hutsik zelako– eta emakumeak unea aprobetxatu zuen zinta amerikarrez neskaren ahoa estaltzeko eta eskuak bizkarrean loturik uzteko. Alkatesak Cindy bizkortu zuen –honek garraiatu ninduen bizkarrean– eta abereak bezala gidatu gintuen kanpoaldean utzitako furgoneta barnean egoeraren balantzea egiteko asmoz. Bolintxe lasaiago zen. Antsietate krisialdia pairatu zuen tiroak eta odola eta anabasa ikusirik, urdail delikatuko argentinarra, ulertzekoa

zen. Nerbio-urduritasuna kontrola zezala esan zion Alkatesak; alferrik, eta osasunbide terapeutikoa martxan jarritz masaila bietan esku irekiaren lorratz gorriak landatu zizkion argentinarrari. Bolitxe gizajoagan izan zuten eragina kontuan izanik, Cindyk benetan estimatu zituen emakumearen medikuntzarako trebeziak.

Hondartza parean ireki nituen begiak, handik ia ordu erdira. Hezetasun gaziak zorabioa sortu zidan ala zartagina zen erruduna, batek igarri. Furgonetan ziren sozioen bisaiak desenfokaturik nituela esateko gai izan nintzen, baina ez besterik. Laino mugikor haien artetik –itsasoak beti du antzerako eragina nire urdailean– Viky gaztearen irudi mutu eta geldoa ailegatu zitzaidan. Cindyk zera aholkatu zidan, ez niezaiela jaramon larregirik egin buru eta begien fokalizazio ezinei, eskarmentu handia zuela berak halakoetan eta egun parearen ostean laster gaindituak izango nituela denak.

Lapurreta arruntaren itxura izan zedin, gure Cindyk bizkartzain korsikarren urrezko erlojuak eta etxean ziren ondasun urri batzuk eraman zituen, sakelako telefono garestiak eta billete moreko eskukada mordo batzuk. Neskak, odola ikusita izaturik, alde egingo zuela zatekeen azalpenik argiena. Xantuei ez zitzaien komeni poliziarri deitzerik eta ez zuten gorozkietan muturrak gehiegi sartuko.

Beraz, eta istorioari amaiera egokia ematekotan, Bolitxek eta biok gure trauma psikologikoak gaindituko ditugu hamar mila argudio haiekin. Cindyk hortzadura berria izateko nahiko kopuruaz jabetu da eta Alkatesak ikastaro trinkoetan aritzeko aukerei ekingo die gure sozietate liberalarentzat emendiogariak diren bide profesional berriak landuz eta aldi berean, burokraten aurpegi zurbildu eta ernegazio beterikoekin gozatuz.

Emozio aztoratzaileak atzean utzita, azkenik zortearen norabidea nire alde izango dela uste dut. Baina biharkoak ekarriko du haize berria, jakina.